

## **ELKAREKIN**

### **- FUNTSEZKO BALIABIDEAK:**

Gure enpresa aurrera eramateko hainbat baliabide beharko ditugu, zehazki hurrengo hauek:

#### **Baliabide fisikoak:**

- Lokala: Goi Mailako Lanbide Heziketarako gelak eta udalak utziko dizkigu.
- Jarduera desberdinak egiteko beharrezkoak izango diren materialak eta lehengaiak (sukaldatzeko osagaiak, josteko materiala, etxeko konponketa txikiak egiteko tresnak, mahai jokoak, besteak beste.)
- Gure enpresaren antolakuntzako bakoitzak ordenagailu bana izango du, beraz, guztira bost ordenagailu izango ditugu. (Jardueren katalogoa prestatzeko, ordutegiak antolatzeko, bazkideekin kontaktuan jartzeko, publizitaterako kartelak sortzeko)
- Gure enpresaren Web-a. Han gure proiektuari buruz garatuko dugu, jendea gurekin kontaktuan jartzeko aukera izango du eta enpresaren buruzko informazioa ere argitaratuko dugu.

#### **Baliabide intelektualak:**

- Enpresaren sortzaileen eta koordinatzaileen ezagutza eta esperientzia, bakoitzak ardura desberdinak izango ditugu:
  - Markelek ordutegiak eta asteko ekintzak antolatuko ditu. Arduratsua eta zehatza delako, baita antolakuntza-gaitasun handia duelako.
  - Arkaitzek nagusiak eta gazteak koordinatuko ditu. Ondo eta argi komunikatzen delako, pazientzia dauka eta lidergo gaitasuna ere.
  - Tania udalekin, Goi Mailako Heziketarako zentroekin eta erakunde desberdinekin kontaktuan egongo da. Harreman sozial onak dituelako. Horretaz gain, hizkera formala eta egokia erabiltzeko gaitasuna, baita erantzukizuna eta seriotasuna ere.
  - Uxue proiektuaren publizitateaz arduratuko da. Sormen handia, sare sozialen erabileraren ezagutza handia eta komunikazio bisuala lantzeko gaitasuna duelako.
  - Izarok izen-emateak eta asistentzia kontrolatuko ditu, eta sortutako arazoak konponduko ditu. Arduratsua eta fidagarria delako, baita datuen kudeaketan trebea. Gainera, estresaren aurrean kontrola du, erabakiak hartzeko segurtasuna eta arazoak azkar eta lasaitasunez konpontzeko gaitasuna.
- Adineko pertsonen ezagutza praktikoa. Haien tailerretan gazteei erakutsiko dietelako jarduera desberdinak (sukaldatzen, josten, etxeko konponketa txikiak egiten, besteak beste.)

#### **Giza baliabideak:**

- Koordinatzaileak: Ordutegiak eta asteko ekintzak antolatuko dituzte, nagusiak eta gazteak koordinatuko dituzte, udalarekin, GMH zentroekin eta erakunde desberdinekin kontaktatuko dute, proiektuaren publizitatea egingo dute (kartelen eta sare sozialen bidez), izen-emateak eta asistentzia eta sortutako arazoak konponduko dituzte. Bost koordinatzaile izango gara.
- Monitore boluntarioak: Koordinatzaileak monitore moduan jokatuko dute, baina monitore boluntarioak ere onartuko genituzke. Tailer bakoitzean bi monitore egongo

dira. Hauek boluntarioak izango dira, boluntariotza egin nahi duten eskautak edo karteletan jarriko dugu monitore boluntarioak onartzen ditugula, beraz, nahi duenak apuntatu daitezke.

**Finantza baliabideak:**

- Sortzaileek hasieran egingo dugun ekarpena, 2.000€ bakoitzak, beraz, guztira 10.000€ izango genituzke.
- Gainera, 20.000€-ko mailegua eskatuko dugu.